



Donostia 2016

## JALGI HADI PLAZARA!

## kantuz 94

### Argitalpena/Edita:

Euskal Herriko Abesbatzen Elkarte  
/Confederación de Coros del País Vasco

### Helbidea / Dirección:

234 postakutxatila. Plaza Zaharra, 1-2  
solairua (Idiákez Jauregia). 20400 Tolosa  
(Gipuzkoa).

### Telefonoa / Teléfono:

943 670 013

### E-posta/E-mail: info@korlakeae.com

### Web: www.korlakeae.com

### Babeslea/Patrocina:

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila,  
Kultura Ministerioa/Consejería de  
Cultura del Gobierno Vasco, Ministerio  
de Cultura

### Koordinatzailea / Coordinadora:

Nerea Pikabea Amundarain

### Diseinua / Diseño:

Iñigo Puerta

### Kolaboratzaileak / Colaboradores:

Maria Agirre Unzueta, Jose Ignacio  
Alberdi Egaña (co-responsable del  
Archivo de la Parroquia San Sebastián  
de Soreasu de Azpeitia), Enrique Azurza,  
Donostia 2016 bulegoa, Annie Dumay  
(Iparraldea Kantuz argazkiak), Paco  
Epelde (Julian Barrenetxearen argazkiak  
utzi dizkiguna-Azpeitiko Soreasuko San  
Sebastian parokiako Artxiboa), Amaia  
Garmendia, Dabid Jimenez (Pantxoa  
Etchegoin argazkiak), Dominique  
Lambert, Iñaki Mezquita (fotos taller  
infantil), Kepa Mujika, Rennier Piñero,  
Fotos Renedo (Antigua Abesbatzak  
Lehiaketa), World Symposium on Choral  
Music, IFCM.

### Frantseseko itzultzailea /

### Traductrice:

Dominique Lambert

### Beste itzulpenak/

### Otras traducciones:

Maria Agirre Unzueta, Amaia  
Garmendia.

### Inprimategia / Imprenta:

Gertu Inprimategia. Oñati



## aurkibidea sumario sommaire

### 3-Editoriala

**4-Arabako Haur Abesbatzen Eguna /  
Día Coral Infantil de Álava**

**5-Santa Maria Zintzarri 25 urte**

**6-Jueves de Lardero + Abendaño  
abesbatza**

**7-Abesbatzen topaketa Azkoitia +**

**Konposizio lehiaketa / Encuentro  
coral en Azkoitia + Concurso de**

**composición**

**8-Inmakuladako Abeslariak**

**9-Bizkaiko Abesbatzen Eguna +**

**Kolitza abesbatza**

**10-Leioa Kantika Korala**

**11-Mendi-Ona Abeslariak Pragan**

**12-Homenaje a Jesús Guridi**

**13-Ganbara Txiki eta Gazte**

**Arantzazun**

**14-Hodeiertz eta Coro EHU-UPV**

**15-Bizkargi haur abesbatzak 25 urte**

**16-Kantaka y su zarzuela**

**17-Hernaniko Musika Eskolako**

**Abesbatza**

**18-19 Julian Barrenetxea gogoan**

**20-21-Haur Koruen V. Tailerra / V.**

**Taller de Coros Infantiles**

**22-Musika sakratuaren zikloa**

**Hondarribian / Ciclo de música**

**sacra en Hondarribia**

**23-Iparraldea Kantuz + Euskal Herria**

**Cantat**

**24-Arraga 20 urte**

**25-Landarbaso abesbatza + Entzun**

**abesbatza**

**26-Abesbatzen Zuzendaritza**

**Akademia / Academia de Dirección**

**Coral**

**27-Cursos con Ester Bonal y**

**Theodora Pavlovitch**

**28-Pantxoa Etchegoin elkarrizketa /**

**Entretien avec Pantxoa Etchegoin**

**31-Grand Prix + WYC**

**32-33- KEA Ahots Taldea**

**Nazioarteko Sinposioan / Grupo**

**Vocal KEA en el Simposio**

**Internacional**

**34-Donostia 2016**

**35-Antigua Abesbatzak Lehiaketa**

**36-Laburrak / Breves**

**38-Editorialetako albisteak /**

**Novedades editoriales**



## EDITORIALA

Kantuzeko lagunok,

Gure aldizkariaren zenbaki berri bat aurkezten dizuegu, formatu berriaren emana, edo hobeto esanda, hedapen sistema berriaren emana. Aurrekontu murrizketen ondorioz, aldizkariaren paperezko bertsioa kendu behar izan dugu, oraindik behin behinean. Hala ere, bertsio digitala irakurle berri eta askorengana iristea espero dugu.

2016an Europako Kultur Hiriburua izateko Donostia jaso duen izendapena nabarmendu dugu zenbaki honen azalean; Poloniako Wroclaw hiriarekin batera izango da kultur hiriburua. Zorionik beroenak bidali nahi dizkiogu Donostiari EAEtik, eta bereziki proiektu irabazlea diseinatu duen lantaldeari, lehia gogorra izan baitu beste hiri askorekin.

EAEen proiektu horretan sinesten dugu; besteak beste, herritarren eta erakunde eta kultur elkarte askoren parte-hartzea sustatzeko ahalmen handia izan duela uste dugu. Talde horien artean sartuta daude Koru Federazioak ere.

Hala, koru musikari dagozkion proiektuaren edukia idazteko ardura izan du EAEk. Eduki horiek aztertzen joateko aukera izango dugu, baina honakoa nabarmendu behar dugu: orain hasi eta 2016ra bitarte koru ekintzak asko ugartuko dira Donostian.

Beti bezala, hilabete hauetan izan diren ekintza eta kontzertu askoren berri ematen dizuegu, eta udan eta udazkenean egingo diren emanaldiak iragartzen dizkizuegu. Erakargarritasunez betetako ekintza interesgarriak guztiak.

Zuen interesekoak izango direlakoan,

Agurrik beroena,

**Amaia Garmendia San Sebastián**

EAEko presidentea

## EDITORIAL

Amigos y amigos de Kantuz,

Os presentamos una nueva edición de nuestra revista, que estrena formato, o mejor dicho, nuevo sistema de difusión. Las restricciones presupuestarias nos han obligado a eliminar la edición en papel de la revista, por lo menos temporalmente. No obstante, esperamos que la edición digital llegue a nuevos y numerosos lectores.

En la portada de este número destacamos la reciente designación de Donostia-San Sebastián como capital cultural europea del 2016, junto a la ciudad polaca de Wroclaw. Vaya desde EAE nuestra más cordial felicitación a Donostia, y muy especialmente al equipo que ha diseñado el proyecto ganador en dura competición con muchas otras ciudades.

Desde EAE creemos en un proyecto que ha tenido, entre otras, la gran virtud, de fomentar la participación de los ciudadanos y de numerosas entidades y asociaciones culturales, entre las que se incluyen las Federaciones Corales.

Así, EAE ha sido la responsable de redactar los contenidos del proyecto en lo que a música coral se refiere. Tendremos oportunidad de ir analizando los contenidos del mismo, pero debemos destacar que supondrá un incremento importante de actividades corales en Donostia desde ahora hasta el 2016.

Como siempre, os damos cuenta de un buen número de actividades y conciertos que han tenido lugar estos meses, y os anunciamos los próximos eventos del verano y el otoño, que se presentan llenos de estímulos y alicientes.

Esperamos que sean de vuestro interés,


Un saludo cordial y coral,

**Amaia Garmendia San Sebastián**

Presidente de EAE

Jar ezazu iragarkia **Kantuzen!**  
¡Anúnciese en **Kantuz!**  
Fais ta pub sur **Kantuz!**

info@korlakeae.com



## Doinuekin jolasean

**Haur Abesbatzen Egunean Arabako 100 haur kantari elkartu ziren Gasteizen, Arabatxo Arabako Haur abesbatzen Federazioak antolatuta. Maiatzaren 22an eskaini zuten kontzertua Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatorioan.**

Arabako haur eskolaren artean abeslari txikiak elkartu ziren joan den maiatzaren 21ean eta 22an, Vital Kutxako Gizartekintzak lagundutako proiektuan. 5 eta 12 urte bitarteko kantariak elkartu ziren Barriako aterpetxean, kontzertuko kantuak entseatzeko. Hurrengo egunean jendaurrean erakutsi zituzten tailerrean landutako kantuak.



Abesbatza hauexek parte hartu zuten: Abendaño ikastola, Olabide ikastola, Samaniego eskola eta San Prudencio eskolako korua.

Abeslariak bi taldetan banatuta lan egin zuten, batez ere praktikoagoa delako lan egiteko orduan.

Txikiarekin kanpoko zuzendari gonbidaturik ez dute ekartzen, baina koru desberdinetako zuzendariak elkartzen direnez, batak bestearen lan egiteko moduarekin asko ikasten dute. Kontzertu amaieran elkarrekin abestu zuten 100 kantariak.

Keila Guridi Abendaño abesbatzaren zuzendariak dionez, «entzuleen artean gehienak gurasoak direnez, asko baloratzen dute haurrekin egiten dugun lana eta gehienetan gustura gelditzen dira. Aurten, gainera, denbora izan dugu muralak eta apaingarriak egiteko, oro har eszenografia gehiago zaintzeko, eta umeei asko gozatu dute gauzak prestatzen eta entzuleen iritzi ere oso alaiak eta originalak gelditu da».

**Info +**  
<http://www.arabatxo.net/>



## Jugando con las melodías

**100 niños cantores se dieron cita en Vitoria-Gasteiz, en el Día Coral Infantil. Dentro de esta actividad organizada por Arabatxo, la Federación de Coros Infantiles de Álava, ofrecieron un concierto en el Conservatorio Jesús Guridi el día 22 de mayo.**

En ese encuentro celebrado el 21 y 22 de mayo, se reunieron los cantores más pequeños de Álava, los

de las pre-escolanías. Se trata de una actividad que cuenta con la colaboración de la Obra Social de la Caja Vital Kutxa. El albergue de Barriá fue el punto de encuentro de niños cantores de entre 5 y 12 años. En ese taller ensayaron las obras que al día siguiente interpretaron ante el público.

Éstas fueron las pre-escolanías participantes: Abendaño ikastola, Olabide ikastola, Samaniego eskola

y coro de la escuela de San Prudencio.

Los coralistas trabajaron divididos en dos grupos, sobre todo porque es mucho más práctico a la hora de abordar los temas.

Con los más pequeños no suelen traer directores invitados de fuera, pero en el encuentro se dan cita directores de los diferentes coros, con los que los niños aprenden las diferentes maneras de trabajo. Al final del concierto, los

100 cantores interpretaron unas obras de canto común.

La directora de la pre-escolanía Abendaño, Keila Guridi, indica que, «teniendo en cuenta que en el público la mayoría son padres, valoran mucho el trabajo que hacemos con los niños y generalmente se quedan satisfechos. Este año, además, hemos tenido tiempo para hacer murales y decorados; hemos tenido tiempo para cuidar un poco más la escenografía. Los niños han disfrutado muchísimo y al público le ha parecido muy alegre y original».

**Info +**  
<http://www.arabatxo.net/>

## Santa María-Zintzarri, 25 urte

**Gasteizko Santa María-Zintzarri eskolaniak hogeita bosgarren urteurrena ospatu zuten joan den maiatzaren 21ean. Horretarako musika ekitaldi akademiko bat egin zuten eta, zuzendari ohiek eta abeslari ohiek parte hartu zuten. Angel Alday abesbatzaren sortzaile eta lehen zuzendariaren parte-hartzea nabarmendu behar da.**

Abesbatza hori Gasteizko Santa

Maria (Marianistak) ikastetxeari dagokio. Angel Alday sortu zuen 1985ean eta hogeitaz zuzendu zuen. Amaia Larrañagak segitu zuen orduan eta azken urteetan Nerea Martínez Aranburuzabala izan da abesbatzaren zuzendari; gaur egun, Santa María ikastetxeko Musika Eskolaren barruan dago.

Hiru ardatz nagusi izan zituen ekitaldiak: meza, kontzertua eta lagunarteko bazkaria. Goizean

goizetik abesbatzen gune bilakatu zen zentroa. Toki desberdinetan ahotsa berotzen aritu ziren parte hartu behar zuten lau taldeak; musika-jotzaileak euren tresnak afinatzen aritu ziren; zuzendariak euren abeslariak eta musika-jotzaileak animatzen zituzten, etab.

Marianistetako arduradun nagusiak –ikastetxeko garai bateko zuzendari eta abesbatzen bultzatzailea– zuzendu zuen meza eguerdian. Honako talde hauek



## Santa María-Zintzarri, 25 años

**La escolanía vitoriana Santa María-Zintzarri celebró su veinticinco aniversario el pasado 21 de mayo, con un acto académico-musical, en el que también participaron los ex coralistas y ex directores. Hay que destacar la participación de Ángel Alday, fundador y primer director del coro.**

La escolanía pertenece al colegio de Santa María (Marianistas) de Vitoria-Gasteiz. La fundó Ángel

Alday en 1985 y la dirigió durante 20 años. Le sucedió Amaia Larrañaga y los últimos cursos ha sido Nerea Martínez Aranburuzabala su directora, adscrita actualmente a la Escuela de Música Santa María.

El acto se basó en tres ejes principales: una misa, un concierto y una comida de hermandad. Desde primera hora de la mañana el centro se convirtió en un gran foco coral. Las cuatro agrupaciones que iban a participar calentaban en diferentes

espacios, los instrumentistas afinaban sus instrumentos, los directores animaban a sus coralistas e instrumentistas, etc.

Al mediodía se celebró la misa oficiada por el superior de los Marianistas, antiguo director del colegio e impulsor de las corales. Participaron el coro de adultos dirigido por Jesús Etayo, la Pre escolanía bajo la batuta de Carmen Martínez, la escolanía dirigida por Nerea Martínez y un coro mixto muy especial formado por antiguos

abestu zuten: Jesus Etayok zuzendutako helduen abesbatzak, Carmen Martinezek gidatutako aurre eskolaniak, Nerea Martinezek zuzendutako eskolaniak eta abesbatzako kantari ohiek osatutako ahots nahasietako abesbatza bereziak; azken horiek Angel Aldayren zuzendaritzapean aritu ziren. Ekitaldi atsegina izan zen.

### Ibilbide emankorra

Ekitaldi askotan parte hartu du abesbatza horrek: kontzertuak, trukeak beste taldeekin, Arabatxo Arabako Haur Abesbatzen Federazioak antolatutako ekitaldietan parte hartu du, grabaketak, etab. Katalunian, Valentzian eta Bordelen emanaldiak eskaini ditu.

Hainbat talderekin elkarlanean aritu izan da: Juanjo Mena gasteiztarren zuzendaritzapean abestu dute hainbat aldiz. Laugarren postua eskuratu zuten Tolosako Abesbatza Lehiaketan. San Prudentziotako Erretretan parte hartzen du urtero.

**Info +**  
<http://marias-gasteiz.org/es>

integrantes de la escolanía, dirigido por Ángel Alday. Resultó entrañable.

### Fructífera trayectoria

Muchas han sido las manifestaciones realizadas por esta agrupación coral: conciertos, colaboraciones con otras agrupaciones, participación en las actividades programadas por la Federación de Coros Infantiles Arabatxo, grabaciones, etc. Ha ofrecido conciertos en Cataluña, en Valencia y en Burdeos.

La Escolanía ha tenido el privilegio de colaborar con diferentes agrupaciones: bajo la batuta del director vitoriano Juanjo Mena en varias ocasiones. Logró un cuarto puesto en el Certamen Internacional de Masas Corales de Tolosa. Suele participar en la Retreta de San Prudencio.

**Info +**  
<http://marias-gasteiz.org/es>



## Eguren Lardero egunean abesten

Eguren Lardero egunean Arabako herrietako haurrak kalera atera ziren moxorrotuta, aratusteetako ospakizunak ate joka zudela iragartzera. Gaur egun, kantariak dendatan abesten dute, eta ematen dieten diruarekin merienda bat egiten dute. Arabatxo Haur Abesbatzen Federazioa ohitura hori berreskuratzeko lanean ari da.

## Cantando el Jueves de Lardero

El Jueves de Lardero los niños de los pueblos alaveses salían a cantar por las casas disfrazados el jueves antes de carnaval, anunciando el inicio de dicha festividad. Hoy en día cantan por los comercios y con el aguinaldo que reciben realizan una merienda. La Federación de Coros Infantiles Arabatxo está tratando de recuperar dicha tradición.



## Abendaño ostiraletako kantaldietan

**Gasteizko Abendaño haur abesbatzak Ostiraletako Abesbatzen Kantaldietan parte hartu zuen. Vital Kutxako Gizarte Ekintzak antolatutako ekimen horretan, gutxi gorabehera 750 ahotsak parte hartzen dute urtero. Lehenengo aldiz, 6 eta 11 urte bitarteko kantariak, ezaugarri horiek dituen abesbatza batek egin ditzakeen gauza desberdinak erakutsi zituzten.**

Hain zuzen martxoaren 11n, Abendaño kontzertua eskaini zuen. Lagun izan zituzten Mixel Elorza pianoan, Kolpez-kolpe taldea txalapartan, eta Iruñe Mendizabal, Abendaño ikastolako trikitixa taldearekin.

«Gaztetxoek izugarri ondo pasa zuten» esan digu zuzendariak. «Ikusleak liluratzea lortu genuen, hala esan ziguten. Eta guretzat hori izugarria izan zen. Gainera,

ikastetxeko gaztetxo guztiak gonbidatu genituen, abesbatza zer den ikus zezaten».

Abendaño 1998an eratu zuen gaur egungo zuzendariak, Keila Guridik, eta izen bera duen Haur Hezkuntzako ikastetxe publikoaren baitan dago. Guztira 18 ikasle osatzen dute abesbatza.



## Abendaño en los viernes corales

**La pre-escolanía Abendaño de Vitoria-Gasteiz participó en el ciclo de los viernes corales, organizado por la Obra Social de Caja Vital Kutxa, donde cada año participan cerca de 750 voces. Por primera vez coralistas de entre 6 y 11**

**años pudieron mostrar la diversidad de cosas que se pueden hacer en un coro de estas características.**

El 11 de marzo Abendaño ofreció un concierto, donde le acompañaron Mixel Elorza al piano, “Kolpez-kolpe” en la txalaparta e Iruñe Mendizabal con el grupo de trikitixas de la ikastola abendaño.

«Ellos disfrutaron muchísimo», señala la directora. «Y lo más grato fue escuchar del público que habíamos conseguido sorprenderles, que era lo que pretendíamos. Se invitó a todo el alumnado del centro al que pertenecen los chavales, para que pudieran conocer lo que es el coro».

Abendaño fue creado en 1998 por su actual directora, Keila Guridi, y está vinculado al centro público escolar de Primaria que lleva su nombre. El coro está compuesto por 18 alumnos.

## Haur abesbatzen topaketa Azkoitian

**Gasteizko Udaberria abesbatza eta Kanta-kantari-Vedruna abesbatza Irungo Ametsa Txiki abesbatzarekin elkartu ziren pasa den martxoaren 12-13an. 8 eta 17 urte bitarteko 70 neska-mutil elkartu ziren Azkoitian.**

Topaketa Azkoitiko Kuku-Herri aterpetxean izan zen. Bi egun horietan entseguak eta tailerrak egin zituzten. Gasteizko bi abesbatzak Nagore Alanguak zuzentzen ditu, eta Irungo korua, berriz, Leticia Vergarak.

Zuzendari horietaz gain, Isabel Mantecon irakasle eta zuzendariak

ere parte hartu zuen topaketa horretan. Obrak landu eta kontzertuan batera kantatu beharreko obrak zuzendu zituen.

Topaketa kontzertu batekin amaitu zen; asteburu horretan eta aurreko hilabeteetan abesbatza bakoitzak egindako lana erakutsi zuten martxoaren 13an Azkoitiko Santa Maria la Real parrokian. Koru bakoitzak bere errepertorioa abestu ondoren, denek elkarrekin topaketan landutako obrak eskaini zituzten.

Info +

[www.udaberria.com](http://www.udaberria.com)

[www.coroametsa.org](http://www.coroametsa.org)



## Encuentro coral en Azkoitia

**La Escolanía Udaberria y la coral Kanta-kantari-Vedruna abesbatza se reunieron con la coral Ametsa Txiki de Irún el pasado 12 y 13 de marzo en Azkoitia. En el encuentro participaron chicas y chicos de entre 8 y 17 años.**

El encuentro se llevó a cabo en el albergue Kuku-Herri de Azkoitia, donde el fin de semana realizaron los ensayos y talleres. Las corales de Vitoria-Gasteiz las dirige Nagore Alangua, mientras que la directora

de los iruneses es Leticia Vergara.

Además de ellas, en el encuentro participó la también directora y profesora Isabel Mantecón, con quien trabajaron las obras de canto común del concierto.

Para finalizar el encuentro se ofreció un concierto, donde mostraron el trabajo realizado por cada coro ese fin de semana y en los meses previos. La actuación se celebró el 13 de marzo en la parroquia Santa María la Real de Azkoitia. Cada coro interpretó su propio repertorio y después se unieron todas las corales para mostrar las obras trabajadas en el encuentro.

Info +

[www.udaberria.com](http://www.udaberria.com)

[www.coroametsa.org](http://www.coroametsa.org)

## Saritutako kantuen estreinaldia

**Joan den maiatzaren 7an aurkeztu ziren “BBK Sari Nagusia” XIV. Konposizio Lehiaketako obra sarituak. Bizkaiko Abesbatzen Federazioak antolatzen du konposizio lehiaketa hori.**

Lehiaketa horretarako, habanerak eskatu ziren, lau ahots nahasiz osatutako abesbatzek kantatu ahal izateko; obrek euskaraz edo gaztelaniaz izan behar zuten.

Pasa den maiatzaren 7an estreinatu ziren kantuak Bilboko BBKren aretoan. Ignacio Parres madrildarraren *La niña morena* abestia kantatu zuen Balmasedako Koltza abesbatzak; obra horrek jaso zuen lehen saria. Mundakako abesbatzak Sabin Salaberri gasteiztarraren *Agur Izarrak* estreinatu zuen; Salaberrirentzat izan zen bigarren saria; eta azkenik, Areta-Getxoko “Zozoak” Abeslari Lagunen abesbatzak Xavier Ferrer valentziarraren *Amanece en Ondarroa*

kantua eskaini zuen: Valentziako musikagileak eraman zuen hirugarren saria.

Emanaldi horretan banatu zitzairen saria hiru obren egileei.

### Folklore abestiak

Bizkaiko Abesbatzen Federazioak “BBK Sari Nagusia” Konposizio Lehiaketa antolatu du berrito. Aurtengoa 15. Lehiaketa da eta folklore abestiak eskatzen dira. Euskal mitologia da gai nagusia eta edozein ahotsek kantatzeko obrak izan behar dute (gehenez lau ahots); euskaraz edo gaztelaniaz izan daitezke.

Lehiaketaren helburua kantatzeko moduko errepertorioa sortzea da eta musikari dagokionez kantuak duen interesak garrantzia handiagoa izango du zailtasunak berak baino. Beraz, koru amateur batek kantatzeko moduko obra izan behar du.

Info +

[www.euskalnet.net/bae/](http://www.euskalnet.net/bae/)

## Estreno de obras premiadas

**El pasado día 7 de mayo se presentaron las obras premiadas del XIV Concurso de Composición para Coros “Gran Premio BBK”, organizado por la Federación de Coros de Bizkaia.**

Para ese certamen se requirieron habaneras escritas para coros de cuatro voces mixtas, en euskara o castellano.

Las obras se estrenaron el día 7 de mayo en la sala BBK de Bilbao. El coro Koltza abesbatza de Balmaseda interpretó la obra del madrileño Ignacio Parres titulada *La niña morena*, que se llevó el primer premio. Mundakako abesbatza cantó *Agur Izarrak* del vitoriano Sabin Salaberri, segundo premio del concurso; y Abeslari Lagunen abesbatza “Zozoak” de Las Arenas-Getxo interpretó *Amanece en Ondarroa* del valenciano Xavier Ferrer, tercer premio.

En ese concierto se entregaron los

premios a los compositores de las tres obras.


### Obras de folklore

La Federación de Coros de Bizkaia vuelve a convocar un año más el Concurso de Composición “Gran Premio BBK”, que este año cumple ya la decimoquinta edición. Para este año se requieren obras de folklore, cuyo tema principal sea la mitología vasca. Deberán ser obras escritas para cualquier tipo de voces (máximo cuatro voces), en euskara o castellano.

El objetivo del concurso es crear un repertorio realmente cantable cuyo interés musical sea mayor que su dificultad, de tal manera que la obra pueda ser interpretada por un coro amateur.

Info +

[www.euskalnet.net/bae/](http://www.euskalnet.net/bae/)



## Inmakuladako Abeslariak eta zarzuela

Joan den martxoaren 4, 5 eta 6an, Bilboko Inmakuladako Abeslariak ahots nahasien abesbatzak Emilio Arrietaren *Marina* zarzuelan kantatu zuen. Horretaz gain, Pablo

Sorozabalen *La Taberna del Puerto* ere eskaini zuten Bilboko Campos Eliseos antzokian, Jose Maria Damunt maisuaren *Zarzuela Konpainiarekin batera*.



## Inmakuladako Abeslariak y su zarzuela

Los pasados días 4, 5 y 6 de marzo la agrupación coral mixta Inmakuladako Abeslariak de Bilbao participó en la representación de las zarzuelas *Marina* de Emilio Arrieta y *La Taberna del*

*Puerto* de Pablo Sorozábal, junto con la Compañía de Zarzuela del maestro José María Damunt, en el Teatro Campos Eliseos de Bilbao.

La dirección musical y puesta en escena corrió a cargo del propio

Damunt maisuak eskarmentu handia du zarzuelak prestatzen. Hortaz, bera izan zen musika zuzendaria eta eszenaratzearen arduraduna. Bakarlari lanak egin zituztenei dagokienez, Maria Velascoren eta Juan Antonio Martinen ahots berriak nabarmendu ziren *Marina* obran, baita Ignacio Encinasen eta Maria Angeles Damunten esperientzia ere *La Taberna del Puerto* obran.

Alberto Carrera zuzendaria oso pozik azaldu zen. «Abeslariak izugarriko esfortzua egin dute, oso denbora gutxian ikasi behar izan

dituzte obrak, bereziki *Marina* bezalako lan zaila».

### Irma Rutkauskaite

Urtero bezala, joan den otsailaren 26an laugarren Koru Musikaren Tailerra antolatu zuen Inmakuladako Abeslariak taldeak Bilbon duten egoitzan. Egungo zuzendariaren, Alberto Carreraren ekimena da, eta beste talde batzuetako kantariei irekita dago. Sona handiko zuzendariak gonbidatzen dituzte.

Oraingo honetan, Lituaniako Irma Rutkauskaite zuzendaria gonbidatu zuten. Kaunaseko Unibertsitatean Musikan eta Koru Zuzendaritzan lizentziaduna da. Gaur egun, Getxoko Zozoak abesbatza zuzentzen du. Tailerraren helburuak honakoak izan dira: bakarka edo taldearekin kantatzerakoan afinazioa lortu eta mantendu, noiz afinatzen ari den eta noiz ez desberdintzeko ahalmena landu, eta taldean entzuteak duen garrantzia jabetu.

### Info +

<http://kororrevuelto.blogspot.com/>

organizó la cuarta edición de su Taller de Música Coral, que se celebra anualmente en los locales de su sede en Bilbao. Esta actividad es una iniciativa de su actual director Alberto Carrera, abierta a coralistas de otras formaciones y al que se invitan directores de prestigio.

Este año la directora invitada fue Irma Rutkauskaite, de Lituania, licenciada en Música y Dirección Coral por la Universidad de Kaunas. Actualmente dirige el coro Zozoak de Getxo. Los objetivos del taller eran conseguir y mantener la afinación en el canto individual y coral, trabajar la percepción para diferenciar cuándo se está afinado y cuándo no y adquirir conciencia de la importancia de escuchar al conjunto.

### Info +

<http://kororrevuelto.blogspot.com/>

## Miserere, Koltzaren eskutik

Urte batzuk kantatu gabe egon ondoren, joan den Aste Santuan Balmasedako Koltza abesbatzak ohiko *Miserere* kontzertua eskaini zuen. Eliz musikako obra hori, konpositore ospetsu eta Balmasedako parrokiako organo-jotzaile izandako On Martín Rodríguez Seminariok konposatu zuen. Aurten da haren heriotzaren 50. urteurrena.

*Miserere* 50. Salmoko testuan oinarritutako konposizio bat da, eta Palestrina, Mlegri, Mozart, Eslava, Goikoetxea, Ledesma eta beste hainbat konpositoreren inspirazio iturri izan da. Aste Santurako obra liturgikoa sortzez, testuinguru horretatik at abestu da ondoren. Abesbatza eta orkestrara zuzendutako *Miserere* hori, 1906an, Ostegun Santuz estreinatu zen Gasteizen.

On Martín Rodríguez Seminario

organo-jotzailea eta eliz musikako konpositorea izan zen. Iruñean jaio zen 1871n, eta 1961ean hil zen. 1901ean, organo-jotzaile postua lortu zuen Balmasedako Severino Deunaren elizan.

Aurten, M<sup>a</sup> Jesus Egia organo-jotzaileak lagundu du kontzertuan. Eta iaz Tomas Negrok abesbatzaren zuzendaritza utzi ondoren, aurten Alberto Carrera Ibañez izan da Koltzako zuzendari berria.



## Miserere, por Koltza

Tras unos años de ausencia, esta Semana Santa la coral Koltza de Balmaseda volvió a ofrecer el tradicional concierto del *Miserere*, una obra de música sacra escrita por Don Martín Rodríguez Seminario, ilustre compositor y organista de la parroquia de Balmaseda. Este año se cumple el 50 aniversario de su muerte.

El *Miserere* es una composición

basada en el texto del Salmo 50, que ha inspirado a compositores como Palestrina, Mlegri, Mozart, Eslava, Goicoetxea, Ledesma... Concebida como obra litúrgica de Semana Santa ha sido después interpretada fuera de dicho lugar y tiempo. Este *Miserere* para coro y orquesta, se estrenó en la Catedral de Vitoria el Jueves Santo de 1906.

Don Martín Rodríguez Seminario fue organista y

compositor de música religiosa, nacido en Pamplona el 1871 y fallecido en 1961. En 1901 logró la plaza de organista de la iglesia de San Severino, de Balmaseda.

Este año, el concierto ha incluido el acompañamiento al órgano de M<sup>a</sup> Jesús Eguía. Después de que el año pasado Tomás Negro abandonara la dirección de la coral, este año ha sido Alberto Carrera Ibañez el nuevo director de Koltza.

## Ahotsak elkaturik Sodupen


Bizkaiko 1.300 ahots berriro elkartu ziren ekainaren 5ean Sodupen, Bizkaiko Abesbatzen Eguna ospatzeko. Urtero bezala, Bizkaiko Abesbatzen Federazioak antolatu du egun hori, eta, aurten, Mendi-Ona Abeslariak eta Güeñesko Udalaren laguntza izan dute.

Aurten federatutako 56 abesbatzak esku hartu dute, eta kontzertu bikaina eskaini zuten kanpoan. Gainera, Zallako Laino Eresi Abesbatzak oroigarria jaso zuen taldearen 50. urtemugan. Datorren urtean Abesbatzen Eguna Mungian ospatuko da, herriko Jose M<sup>a</sup> Arregi Abesbatzak hala eskatuta.

## Voces unidas en Sodupe

1.300 voces de Bizkaia volvieron a reunirse el día 5 de junio en Sodupe para celebrar el Día Coral de Bizkaia. Como todos los años, este día lo ha organizado la Federación de Coros de Bizkaia y este año ha contado con la colaboración del coro Mendi-Ona Abeslariak y el Ayuntamiento de Güeñes.

Este año han participado 56 coros federados, que ofrecieron un gran concierto al aire libre. Además, se le entregó un recuerdo a Laino Eresi Abesbatza de Zalla, con motivo de su 50 aniversario. El año que viene el Día Coral se celebrará en Mungia, a petición del coro de la localidad, José M<sup>a</sup> Arregi Abesbatza.



## Kantika, Mahler, opera eta Eskozia artean

**Leioako Kantika Korala** ekitaldi ugari izan ditu udaberrian. Martxoan, BOSein Mahlerren sinfonia interpretatu zuen, eta horretaz gain, *Palabras en la Barriga* haurrentzako operan parte hartu zuten berriro. Hori guztia gutxi ez eta, Astulezen abesbatzak Kepa Junkerari lagundu zion Eskoziarako bidaian.

Joan den martxoaren 17an eta 18an, Leioako Kantika Korala Gustav Mahler konpositore txekiarraren hirugarren sinfonia interpretatu zuen Re minorren. Bilboko Euskalduna Jauregian eskaini zuten kontzertua Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin batera. Konpositorea hil zela ehun urte bete dira, eta horren baitan ziklo berezia antolatu dute.

Errenteriako Andra Mari Abesbatzako emakumeek ere parte hartu zuten Jose Manuel Tiferen zuzendaritzapean, eta baita Natalie Stutzmann kontralto entzutetsuak ere. Egungo zuzendari titullarrak, Günter Neuholdek, zuzendu zuen Bilboko Orkestra Sinfonikoa.

Era berean, iaz Portugalen

aurkeztu zen *Palabras en la Barriga*, Vasco Negreiros konpositore portugaldarraren operan parte hartu zuten berriro ere. Joan den martxoan eszenaratu zuten obra hori Bilboko Arriaga Antzokian.

Eszena zuzendaria Ignacio García izan zen; soprano lanetan aritu ziren Itziar de Unda eta Marifé Nogales, eta bakarlari gisa Axier Sanchez baritonoa. Carla Galleni arduratu zen jantziez, Sara Meggiorin eszenografiatzen eta Paco Ariza argiztapenaz.

Urtarrilean, Leioa Kantika Korala Glasgowra, Eskoziara egin zuen bidaia. 2011 Celtic Connections Nazioarteko Jaialdian, *Beti Biz* azken diskoa aurkeztu zuten Kepa Junkera trikitilariarekin eta haren taldearekin. Zelta eta folk musikako jaialdirik garrantzitsuenaren baitan kokatu zen kontzertua. Glasgowko Royal Concert Hall areto ospetsuan abestu zuen Kantikak. 2.500 laguntzako eserlekuak ditu, eta guztiak bete ziren.

**Info +**

[www.leioakantikakorala.com](http://www.leioakantikakorala.com)

## Kantika entre Mahler, ópera y Escocia

**La coral Kantika Korala de Leioa ha tenido una primavera repleta de actividades. En marzo participó con la BOS interpretando una sinfonía de Mahler y también volvieron a participar en la ópera infantil *Palabras en la Barriga*. El coro de Astulez acompañó a Kepa Junkera en el viaje a Escocia.**

El pasado 17 y 18 de marzo Leioa Kantika Korala interpretó junto con la Orquesta Sinfónica de Bilbao, en el Palacio Euskalduna de Bilbao, la Sinfonía N.º 3 en re menor del compositor checo Gustav Mahler, dentro del ciclo especial que BOS le ha dedicado al 100 aniversario de su muerte.

También participaron el Coro Femenino de la Coral Andra Mari de Errenteria, dirigido por José Manuel Tife, y la prestigiosa contralto francesa Nathalie Stutzmann. La Orquesta Sinfónica de Bilbao estuvo dirigida por su director titular, Günter Neuhold.

Además, volvieron a participar en la ópera *Palabras en la Barriga* del

compositor portugués Vasco Negreiros, estrenada el año pasado en Portugal. La obra fue llevada a escena el pasado mes de marzo en el Teatro Arriaga de Bilbao.

La obra contó con Ignacio García como director de escena y con las sopranos Itziar de Unda y Marifé Nogales y el barítono Axier Sánchez en los papeles solistas. Se encargó del vestuario Carla Galleni, de la escenografía Sara Meggiorin y de la iluminación Paco Ariza.

En enero, Leioa Kantika Korala también viajó a Glasgow, Escocia, donde presentó en el Festival Internacional Celtic Connections 2011 su último trabajo discográfico *Beti Biz*, junto al trikitilari Kepa Junkera y su grupo. El concierto se enmarcó dentro de uno de los festivales de música celta y folk más importantes del mundo. Kantika actuó en el Royal Concert Hall de Glasgow, emblemática sala de conciertos de 2.500 localidades llenas de público.

**Info +**

[www.leioakantikakorala.com](http://www.leioakantikakorala.com)

## Mendi-Ona Abeslariak Pragan

Sopudeko Mendi-Ona Abeslariak abesbatzak oraindik gogoan du abenduaren 2tik 6ra Pragara egin zuen bidaia atsegina. Kontzertu bat eskaini zuten Europako beste abesbatza batzuekin batera.

Prague Advent Choral Meeting izeneko erakundearen bidez bidaiatu zuten bizkaitarrek. Bost egun iraun zituen bidaian kontzertu bat eskaini zuten San Nikolaseko katedralean, Budapest, Norvegia, Suedia eta Belgikako beste abesbatza batzuekin batera.

Sodupeko abesbatzak pieza erlijiosoak, herrikoiak eta Gabon kantak taularatu zituen Idoia Terrerosek gidatuta. Bukaeran,

abesbatza guztiek hainbat kantu kantatu zituzten elkarrekin.

35 ahots nahasiz osatuta dago abesbatza, eta 2000. urtean eratu zen. Aurrez ere izan zen abesbatza bat, baina desegin egin zen. Duela lau urtetik hona, Idoia Terreros Villanueva da taldearen zuzendaria.

Irailan Dublinera joatea aurreikusita dute, eta bertan bi kontzertu eskainiko dituzte.



## Mendi-Ona abeslariak en Praga

La coral Mendi-Ona abeslariak de Sodupe conserva todavía el grato recuerdo del viaje que realizaron a Praga entre el 2 y 6 de diciembre. Ofrecieron un concierto junto con otras corales europeas.

Los vizcaínos viajaron por mediación de la organización Prague Advent Choral Meeting. En el viaje de cinco días, ofrecieron un concierto en la Catedral de San Nicolás, junto con otras corales de Budapest, Noruega, Suecia y Bélgica.

La coral de Sodupe interpretó temas religiosos, populares y Villancicos, bajo la batuta de Idoia Terreros. Al final, todas las corales

interpretaron varias obras de canto común.

La coral compuesta por 35 voces mixtas, se fundó en el año 2000. Anteriormente hubo una coral, pero se disolvió. Desde hace cuatro años dirige la coral Idoia Terreros Villanueva.

El coro tiene previsto viajar a Dublín en septiembre, donde ofrecerá dos conciertos.



## Jesus Guridi oroimenean

**Bilboko Ganbera Koru eta Orkestrak hainbat ekitaldi antolatu ditu Jesus Guridi omentzeko, bera hil zela 50 urte bete direnean. Abesbatza eta orkestra bizkaitarrek harreman estua dute Guridi familiarekin, maisuaren alabetako bat -Julia- abesbatzako kidea baita.**

Apirilaren 7an 50 urte bete ziren Jesus Guridi hil zela. Apirilaren 14an Jesus Guridiren

omenezko ekitaldi bat egin zen Bilboko Jesuiten Ikastetxeke Elizan; kontzertu bat eskaintzeaz gainera, oroigarri bat eman zitzaion Juli Guridiri, maisuaren alabari eta koruko sortzaile eta kantari ere badenari.

Maiatzaren 21ean, bigarren emanaldi bat eskaini zuten Santiago Katedralean, Txaber Fernandezek zuzenduta; Guridiren ibilbidea eta abesbatzaren historia jasotzen dituen liburu txiki bat

aurkeztu zen.

### Talentuko musikaria

Jesus Guridi Bidaola konpositorea, organo-jotzailea, zuzendaria eta irakaslea izan zen. Gasteizen jaio zen 1886ko abuztuaren 25ean eta Madrilen hil zen 1961eko apirilaren 7an. Musikari familia batetik etorri zen.

1904an, Parisera joan zen Schola Cantorumera; pianoa, organoa, konposizioa, kontrapuntua eta fuga



## Jesús Guridi en el recuerdo

**El Coro y Orquesta de Cámara de Bilbao ha organizado varios actos de homenaje a Jesús Guridi, en el 50º Aniversario de su fallecimiento. La coral y orquesta vizcaínas tienen una estrecha relación con la familia Guridi, ya que una de las hijas del maestro -Julia- es componente de la coral.**

El 7 de abril se cumplieron 50

años desde que falleciera Jesús Guridi. El día 14 de abril, hubo un homenaje a Jesús Guridi en la Iglesia del Colegio de los Jesuitas de Bilbao, donde además del concierto, se hizo entrega de un recuerdo a Juli Guridi, hija del maestro y, socia fundadora y compañera del coro.

El 21 de mayo, se celebró un segundo concierto en la Catedral de Santiago, dirigidos por Txaber Fernández, donde se presentó un

pequeño libro en el que se recoge la figura de Guridi y también la historia del coro.

### Un gran genio musical

Jesús Guridi Bidaola fue compositor, organista, director y docente. Nació en Vitoria-Gasteiz el 25 de agosto de 1886 y falleció en Madrid el 7 de abril de 1961. Descendía de una familia de músicos.

En 1904, marchó a París, a la Schola Cantorum, a estudiar piano, órgano, composición, contrapunto y fuga. Fue compañero de Resurrección María de Azkue y José María Usandizaga. De ahí marchó a Bélgica para completar sus estudios de órgano.

Su regreso a Bilbao se produjo en un ambiente de gran prestigio

ikasi zituen. Resurrección María Azkueren eta Jose Maria Usandizagaren laguna izan zen. Hortik Belgikara joan zen organo ikasketak hobetzera.

Ospe handia zuela eta kultur zalaparta handia zegoen giro batean itzuli zen Bilbora. Organo-jotzailea izan zen, Santos Juanes elizan lehendabizi eta Santiago Katedralean gero.

1911n, Bilboko Koral Elkarteke zuzendari izendatu zuten; euskal koru musika zabaltzen garrantzi handiko lana egin zuen Elkartetik: izaera herrikoia zuten kantu asko harmonizatu zituen, horien artean *Cantos populares vascos* konposizioko hiru bildumak. Aurrerago, *Amaya* eta *El Caserío* operak estreinatu zituen, eta zarzuelak egiten hasi zen buru-belarri. Bere obra sinfonikoen artean *Diez Melodías Vascaas* aipa genezake.

Beranduago, irakasle lanpostua atera zuen Madrilgo Errege Kontserbatorioan; bertako zuzendari izendatu zuten 1956an.

Info +  
[www.amcb.es](http://www.amcb.es)

personal y de una gran ebullición cultural. Fue organista de la iglesia de los Santos Juanes y después de la basílica del Señor Santiago.

En 1911, fue nombrado director de la Sociedad Coral de Bilbao, desde la cual desarrolló una trascendental labor de divulgación de la música coral vasca, armonizando una gran cantidad de obras de carácter popular, entre las que destacan las tres series de *Cantos populares vascos*. Más adelante estrenó las óperas *Amaya* y *El Caserío*, y se volcó en la composición de zarzuelas. Entre sus obras sinfónicas destaca *Diez Melodías Vascaas*.

Más tarde, obtuvo la plaza de profesor de órgano en el Real Conservatorio de Madrid, del que en 1956 llegaría a ser director.

Info +  
[www.amcb.es](http://www.amcb.es)

## Musika erlijiosoa begiratzeko beste modu 2

**Oñatiko Ganbara Txiki eta Ganbara Gazte abesbatzek Musika erlijiosoa begiratzeko beste modu 2 emanaldi berezia eskaini zuten joan den martxoaren 26an Arantzazuko basilikan. Musika sakroa ohikoa ez den estiloetan**

**aurkeztu nahi izan zen, txalaparta, trikitixa, baxua, alboka edota gitarra bezalako musika tresnez lagunduta.**

Estilo desberdinetako piezak eskaini zituzten 70 lagun artean; guztien artean bi nabarmendu daitezke: Karl Jenkins britainiarren

*Adiemus* obra entzutetsua eta Josu Elberdin pasaitarraren *Magnificat*.

Aipatutako lehenengo obra, *The Songs of Sanctuary* diskoan grabatu zen 90eko hamarkadan eta ordutik musika klasikoko disko salduen artean kokatu da. Bertan biltzen diren kantu ugari telebistako iragarkietan



## Otras 2 formas de ver la música religiosa

**Las corales Ganbara Txiki y Ganbara Gazte de Oñati ofrecieron una actuación especial bajo el nombre Musika erlijiosoa begiratzeko beste modu 2, un montaje que invita a mirar de otra manera a la música religiosa. El concierto se celebró el 26 de marzo en la basílica de Arantzazu y se trató de**

**exponer la música sacra en un formato no convencional, con el acompañamiento de instrumentos musicales como la txalaparta, la trikitixa, el bajo, la alboka y la guitarra.**

Los 70 cantores y músicos interpretaron piezas de muy diferentes estilos, de las cuales cabe destacar la famosa obra *Adiemus* del británico Karl Jenkins y *Magnificat*

del pasaitarra Josu Elberdin.

La primera obra mencionada se editó en el disco *The Songs of Sanctuary* en la década de los 90, y desde entonces, es uno de los discos más vendidos de música clásica. Muchas de las obras que se recogen en ese disco se han utilizado para anuncios de televisión.

Sin embargo, la obra *Magnificat* es más reciente; se estrenó la

ere erabili izan dira.

*Magnificat* obra, ordea, berriagoa da. Iazko udaberrian estreinatu zen. Kantariekin batera aritu ziren Zuhaitzaren Soinua kolektiboko txalapartariak, Juan de Azpiazu Musika Eskolako trikitilariak, Gorka Azkarate albokaria, Kristina Larrañaga baxu-jotzailea eta Unai Lopetegui bateria-jotzailea. Amaia Biain, Leire Zelaia eta Nere Ibarra aritu ziren bakarlarri lanetan, eta guztien zuzendari Aitor Biain.

### Bigarren saria Ejean

Ganbara Gazte abesbatzak bigarren saria eskuratu zuen maiatzaren 1ean Ejea de los Caballerosko 41. Lehiaketan, gazte koruen sailean. David Azurzaen *Akerrak Ken* abestia aurkeztu zuten eszenografia berezi batekin eta, baita ere, Josu Elberdinek Ejeako lehiaketarako oñatiarrentzat espreski konposatutako *2 canciones mañicas* obra abestu zuten.

Info +  
[www.ganbara.org](http://www.ganbara.org)

pasada primavera. Acompañaron a los coralistas de Ganbara los txalapartaris del grupo Zuhaitzaren Soinua kolektiboa, los trikitilari de la Escuela de Música Juan de Azpiazu, el albugero Gorka Azkarate, la bajista Kristina Larrañaga y el batería Unai Lopetegui. Amaia Biain, Leire Zelaia y Nere Ibarra cantaron como solistas, y la dirección de todo el grupo recayó en Aitor Biain.

### Segundo premio en Ejea

El 1 de mayo, Ganbara Gazte abesbatza obtuvo el segundo premio en el 41. Certamen Coral de Ejea de los Caballeros, en la modalidad de coros juveniles. Interpretaron la obra *Akerrak Ken* de David Azurza, con una especial escenografía, y también, *2 canciones mañicas* de Josu Elberdin, obra compuesta para los oñatiarras expresamente para el Certamen de Ejea.

Info +  
[www.ganbara.org](http://www.ganbara.org)



## Rheinbergerren mezarako elkaturik

**Euskal Herriko bi ganbera abesbatzek ahotsak batu zituzten Josef Rheinbergerrek koru bikoitzerako egindako Meza kantatzeko, musika polikorral erromantikoaren altxorretariko bat abesteko hain zuzen. Enrique Azurzak zuzendutako bi abesbatzek, Tolosako Hodeiertzek eta EHU-UPVren Abesbatzak, Arrasaten, Avilesen eta Torrelavegan eskaini zituzten kontzertuak.**

Rheinbergerren meza *Cantus Missae* izenarekin ezagutzen da; zortzi

ahotsetara kantatzeko eginda dago. A Capella kantatzeko egindako musika polikorral erromantikoaren altxor bat da, musikagileak abesbatza bikoitzak kantatzeko egin zuen bakarra. Harmonia klasikoak eta erromantikoak ditu Meza horrek, eta Errenazimenduko tradizio kontrapuntistikoarekin lotura du. Lerro melodiko eder batzuk ditu, eta horiek koru idazkeraren nagusitasun argi eta arduratsua agerian uzten dute.

Josef Gabriel Rheinberger (1839-1901) organo-jotzailea eta

konposatzailea izan zen. Vaduzen jaio zen, Liechtensteineko hiriburuan, eta Munichen hil zen.

Kontzertuko egitaraua beste bi lan polikorralekin osatu zen, eta nahiz eta ondorengoak izan, batez ere Franz Bieblen *Ave Maria* (hori ere zortzi ahotsetara), Rheinbergerren harmonia argi eta marra melodiko dotoreen planteamendu kontrapuntistiko klasiko bera dute.

Horretaz gain, Vytautas Miskinis lituaniarraren *Kyrie*, *Gloria* eta *Missa Brevis*en *Sanctus* eskaini zuten, eta baita Charles V. Stanford konpositore

irlandarraren *Beati quorum via*, sei ahotsetara.

Bi abesbatzak elkarlanean aritu diren lehenengo aldia izan da. Kontzertuak apirillean eskaini zituzten: Arrasateko Juan Bautista Deunaren elizan, hain zuzen ere Udaberriko VII. Musikaldia zikloaren baitan; Avileseko musika erlijiosoaren astean; eta Torrelavegako koru musika erlijiosoaren zikloaren barruan.

**Info +**

[www.ehu.es/coro](http://www.ehu.es/coro)  
[www.hodeiertz.eu](http://www.hodeiertz.eu)



## Unidos para la Misa de Rheinberger

**Dos de los coros de cámara más relevantes de Euskal Herria unieron sus voces para interpretar la Misa para doble coro de Josef Rheinberger, una de las joyas de la música policorral romántica. El coro Hodeiertz de Tolosa y el Coro UPV-EHU, ambos dirigidos por Enrique Azurza, ofrecieron este concierto en Arrasate, Avilés y Torrelavega.**

La Misa de Rheinberger, conocida también como *Cantus Missae*, es para

ocho voces a capella. Es una auténtica joya de la música policorral romántica a capella, y la única para doble coro de su autor. Esta misa, de armonías clásicas y románticas, está entroncada con la tradición contrapuntística del Renacimiento. Presenta unas hermosas líneas melódicas que evidencian un claro y cuidadoso dominio de la escritura coral.

Josef Gabriel Rheinberger (1839-1901) fue organista y compositor nacido en Vaduz, capital de Liechtenstein, y fallecido en Munich.

El programa se completó con otras dos piezas policorales que, aunque posteriores, sobre todo el *Ave Maria* de Franz Biebl, también a ocho voces, tienen en común con Rheinberger un mismo planteamiento contrapuntístico clásico, de armonías claras y líneas melódicas elegantes.

También interpretaron *Kyrie*, *Gloria* y *Sanctus* de la *Missa Brevis* del lituano Vytautas Miskinis, y *Beati quorum via* a seis voces del compositor irlandés Charles V. Stanford.

Se trata de la primera colaboración entre estas dos agrupaciones corales. Los conciertos se hicieron en abril en la iglesia de San Juan Bautista de Arrasate, dentro del ciclo VII. Udaberriko Musikaldia; en el ciclo de la Semana de Música Religiosa de Avilés; y en el ciclo de música coral religiosa de Torrelavega.

**Info +**

[www.ehu.es/coro](http://www.ehu.es/coro)  
[www.hodeiertz.eu](http://www.hodeiertz.eu)

## Bizkargi Abesbatza, 25 urte kantuan

**Azkoitiko Bizkargi Abesbatza sortu zela 25 urte beteko dira aurten. Bizkargi Musika Eskolaren baitan dago abesbatza, eta urte horietan guztietan herriko gaztetxo ugari ibili da taldean kantuan. Gaur egun 45 gaztetxok abesten dute.**

Bizkargi Abesbatzak 1986. urtean hasi zuen ibilbidea

Azkoitian. Gaur egun 45 abeslari ditu, 8 eta 12 urte bitartekoak. Nahiz eta aurtengoa urteurren seinalatua izan, ez dute ekitaldi berezirik egingo. Izan ere, 2008-2009 ikasturtean musika eskolaren 25. urteurrena ospatu zuten, eta ekitaldi horietan parte hartu zuen abesbatzak ere.

Sortu zenetik, Maje Larrañagak zuzentzen du Bizkargi Abesbatza.

Larrañagak azaldu digunez, «orokorrean neska gehiago egoten da taldean, eta gehienek musika tresnaren bat jotzen dute. Izan ere, Bizkargi Musika Eskolan ari direnzentzat derrigorrezkoa da 10-11 urteko tartean abesbatzan jardutea, bai behintzat diploma lortu nahi badute. Horregatik, bi urtero abesbatza berriro egiten da, eta zerotik hasi beharra dago. Hala ere, taldean badago musika tresnarik jo ez eta abestea gustuko duen gaztetxorik, edo diploma lortuta ere, taldean jarraitzea erabakitzen duenik».

Bizkargi abesbatzak herriko ekitaldietan parte hartu izan du,

baina herrikan kanpora ere atera izan dira abestera. Esaterako, Euskal Herriko Haur Kantarien Txapelketan parte hartu izan dute. Azpimarratzekoa, bestalde, 1988. urtean *Itxaropena* izeneko diskoa grabatu zutela, Eskoriatza eta Azpeitiko abesbatzekin batera. Juan Carlos Irizar musikariak prestatutako abestiez osatuta zegoen *Itxaropena*, eta arrakasta handia izan zuen. Urtebete geroago, Gabon Kanten inguruko beste disko bat grabatu zuten, baina ez zuen horrenbesteko arrakasta izan.

25 urte beteta, aurrera begira taldearen iraunkortasuna lortzea da Bizkargiren helburu nagusia.



## Bizkargi Abesbatza, 25 años de canto

**Este año se cumplen 25 años de la creación de Bizkargi Abesbatza de Azkoitia. Perteneciente a Bizkargi Musika Eskola, muchos jóvenes han participado en este coro durante estos últimos años. Actualmente el coro cuenta con 45 miembros.**

Bizkargi Abesbatza nació en 1986

en Azkoitia. Actualmente cuenta con 45 jóvenes de entre 8 y 12 años. Aunque éste sea un año señalado, no se ha organizado ningún acto, ya que durante el curso 2008-2009 participaron en los actos programados del 25 aniversario de Bizkargi Musika Eskola.

Desde su fundación, Maje Larrañaga es la encargada de dirigir

Bizkargi Abesbatza. Según nos cuenta Larrañaga, «principalmente el coro está compuesto por chicas. Es habitual que los miembros del coro estén inmersos en el aprendizaje de algún instrumento de música. En Bizkargi Musika Eskola es indispensable participar en el coro para los alumnos de 10-11 años que quieran diplomarse. Es por ello que cada dos años el coro se renueva, y hay que empezar desde cero. De todas maneras, también tenemos jóvenes que no tocan ningún instrumento de música, o deciden seguir en el grupo».

Bizkargi Abesbatza participa en

los actos señalados del municipio, pero también acuden a certámenes de fuera. Por ejemplo, han participado en Euskal Herriko Haur Kantarien Txapelketa.

Recalcar asimismo, que en 1988 grabaron el disco *Itxaropena*, junto a los coros infantiles de Eskoriatza y Azpeitia. *Itxaropena* incluía canciones del músico Juan Carlos Irizar, y obtuvo gran éxito. Un año después grabaron otro disco de canciones navideñas, pero no cosechó tanto éxito.

Con 25 años cumplidos, Bizkargi tiene como objetivo afianzarse durante los próximos años.

## Txulapoz jantzita

